

## EAEko irakasleak lekualdatzeko lehiaketarekin arazoak aurten ere

**DONOSTIA**

Euskal Autonomi Elkarte-ko (EAE) OHoko irakasleak lekualdatzeko lehiaketan arazoak gertatzen ari dira aurten ere, Espainiako Hezkuntza Ministerioak irakasle horiei eman dizkien destinoak ez baitira zuzenak. Jaurlaritzatik bidalitako informazioa gaizki prózesatu dute Madrilen eta horrek sortu du 3.400 laguneko kolektiboari eragiten dion arazoa.

OHoko irakasleen gaineko kompetentziak Eusko Jaurlaritzarenak diren arren, lekualdatzeko lehiaketaren prozesuak autonomi elkarte guztietan antzerakoa izan behar duela aitzakia hartuta, Espainiako Hezkuntza Ministerioa bidali behar izaten du Gasteizko Hezkuntza Sailak lehiaketari buruzko informazioa, gero bertatik, irakasleei euren destinoen berri emate-

ko. Asteon jakin dute lekualdatzean parte hartu duten irakasleek datorren ikasturterako lanpostua non izango duten, baina esan bezala akatsa gertatu denez, baliogabea da Ministerioak emandako informazio hori.

Jesus Mari Lakarra Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ki-deak sindikatuari azaldu die-nez, bi disket bidali zituzten Madrilerara, bat behin-behineko informazioarekin eta beste-a, behin-betikoarekin. Agi-danez, behin-behineko infor-mazioa prózesatu dute Hez-kuntza Ministerioan behin-betikoaren ordezt.

LAB sindikatuaren arabe-ra, «lotsagarria» da honela-koak gertatzea eta «3.400 irakasle oraindik lana izango duten ez dakitela egotea». Jaurlaritzak prozesua Hez-kuntza Ministerioaren esku uztea da, sindikatuaren irudi-ko, arazoaren mamia.

## Suteak Bergarako Mugika pneumatiko fabrika txikitu zuen atzo gauean

**BERGARA**

Suak Bergarako Mugika pneumatiko fabrika kiskali zuen atzo gauean, Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak jakinarazi duenez. Oraindik gertaerak argitzeke dauden arren, sutea halabarrez hasi zen goizaldeko 01.00etan. Suhiltzaileek ezin izan zuten sutea goizaldeko 5.30ak arte

kontrolatu. Sei suhiltzaile kamioi aritu ziren etengabe lanean sutea kontrolatu bitar-tean.

Ibilgailu industrialentzat pneumatikoak egiten dituen Mugika fabrika erabat txiki-tuta geratu da. Ondorioz, oraindik galerak zenbatu gabe dauden arren, oso handiak izan direla azaldu du Barne Sailak.

# Hogeita hamar urteko kartzelara zigortu dute Henar Escudero hil zuen gaztea

Akusazioek 35etik 74 urtera bitarteko presoaldiak eskatu zituzten

**H**enar Escudero neskatoa **H**lehengusina zuen Angel Lopez gaztea 30 urteko kartzelara zigortzea deliberatu du epaileak, nahiz eta auzian parte hartu zuten akusazioek 35 urtetik 74ra bitarteko zigorrak eskatu. Epaia araberak, asasinatze, eraso sexual eta hilotz-profanazio delituak egin zituen Lopezek, baina bortxaketa akusaziotik libre utzi du. Balizko buruko gaixotasunengatik aringarriak ez ditu kontuan hartu.


**BILBO**

Hiru egunez akusatua, le-kukoen, senitartekoaren eta tekni-karien adierazpenak entzun ondoren, joan den hilaren 26an egin zituzten eskaerak lehengusina zuen Henar Escudero hil zuen Angel Lopez kontrako epai-kerako hiru akusazioek. Minis-terio Publikoak 35 urteko zigorra eskatu zuen Galdakaoko (Biz-kaja) gaztearentzat, asasinatzea, eraso sexualak eta hilotzaren profanazioa egin zituelakoan. Izan ere, perituek emandako da-tuen arabera, hil ondoren uzkitik penetratu zuen Lopezek 12 urte-ko neskatoaren gorpua.

Zigor dezente handiagoa es-katu zuen auzian Henarren ama-ren ordezkari izan zen akusazio partikularrak: 74 urteko kartzela zigorra. Akusazio honen arabera, hilotzaren profanazioa ez, baizik eta bortxaketa izan zen lehen ai-patutako penetrazioa. Asasina-tze, eraso sexual eta bortxaketaz gain, bahiketa ere egotzi zion Lo-pezi.

Clara Campoamor elkarte fe-minista, berriz, herri ekimena izan zen kausan, eta 48 urteko zigorra eskatu zuen honako deli-tuonatik: asasinatzea, eraso se-xuala, bahiketa eta hilotzaren profanazioa.

Epaia, ordea, hiru akusa-zioek eskatutakoa baino urte gutxiagora zigortu du Angel Lopez, 30era zehazki, nahiz eta egindakoa «erabateko basake-riatzat» eta «justifikaekin eta



Angel Lopez epaiketan.

XOUSE SIMAL

✓ Hil ondoren uzkitik penetratu zuela frogatu-tzat eman du epaiak, baina ez du bortxaketa-tzat hartu.

ulertezintzat» jo duen. Tribuna-laren arabera, asasinatze deli-tuaren egile da Lopez eta horre-gatik 28 urteko kartzelara zigortu du. Eraso sexual delituagatik, berriz, bi urte eta lau hilabeteko presoaldi txikira zigortu du eta lau hilabeteko presoaldi txikira eta 20.000 pezetako isuna ordaintzera hilotza profanazteagatik. Era berean, izaba duen 15 Henar Escuderoaren amari 15 mi-ñoi pezetako kalteordaina ordaindu beharko dio.

Epaia araberak, frogatuta geratu da hil ondoren Angel Lo-pezek uzkitik penetratu zuela 12 urteko neskatoa, ziurrenik maki-la batekin. Dena dela, hori ez du bortxaketatzat hartu epaileak akusazio partikularrak eskatu zuen bezala, profanaziotzat bai-

zik. Halaberean, igurtzi lizunak egin zizkiola ere frogatutzat eman du, eta etxean jaso eta Bil-boko Pagasarri parkera eraman ondoren, zintzurra estutuz hil zuela.

1993ko maiatzaren 24an ger-tatu ziren jazoeraok, Bilboko neskatoak 12 urte zituenean. Etxean bakarrik zegoen eta le-hengusua bertara joan zen eta autoan ostera bat ematera gonbi-datu zuen. Pagasarriko parkera eraman zuen zuzenean eta bertan hil. Ondoren, ihes egin zuen Lo-pezek, hiruzpalau egunen buruan Espainiako Poliziak Salamancan atxilotu zuen arte. Harrapatu eta berehala aitortu zuen lehengusi-na hil zuela, baina bortxatu ez zuela egin esan du behin eta be-rriz.

## ESKELAK



**BEGOÑAZPI  
IKASTOLA**

**25. URTEURRENA**

*Hildako ikasle, irakasle, guraso eta zerbitzuetako pertsonala gogoratu nabi ditugu egun honeta.*

**Agur, eskerrik asko eta egun handirarte**

## HILDAKOAK

### ARABA

☉ GASTEIZ Jose Carlos de Luz Serrano, 65 urte. Victoria Saez de Jauregi Fernandez, 79 urte. Marcela Fernandez de Romarategi, 87 urte.

☉ AMURRIO Eugenio Alaba Ugarte, 69 urte. Valentina del Rio Aledo, 87 urte.

☉ BILLABUENA Jaime Molina Fernandez, 79 urte.

☉ TURISO Deniel Valderrama Gordejuela, 87 urte.

### BIZKAIA

☉ BILBO Carmen Saenz de la Camara Tejada, 81 urte. Leonardo Puente Lopez, 57 urte. Maria Luisa Gonzalez Rojo, 77 urte.

☉ ARANTZAZU Francisco Javier Landajo Regil, 56 urte.

☉ BARAKALDO Ines Larrazabal Saratxo, 84 urte.

☉ DURANGO Rufino Kapelastegi Arana, 63 urte. Jose Antonio Astigarraga Pico, 51 urte.

☉ ERANDIO Maria Esteban Prada, 89 urte.

☉ MORGSA Salvador Ormaetxea Oñarte-Etxebarria, 79 urte.

☉ PORTUGALETE Elena Orbe Lezameta, 64 urte.

### GIPUZKOA

☉ DONOSTIA Josefa Argiñano Arzoz, 77 urte. Pedro Etxeberria Etxabe, 101 urte. Pedro Miguel Gomez, 91 urte. Manuela Zapalena Mendiberri, 101 urte.

☉ AZKOITIA Jose Maria Ibarra Sudupe, 87 urte.

☉ EIBAR Pedro Larreategi Iraola, 88 urte.

☉ ELGOIBAR Jose Garagarza Olasolo, 78 urte.

☉ IDIAZABAL Eulalia Elorza Elorza, 81 urte.

☉ ITZIAR Joakina Urbieta Aldabaldetretu, 86 urte.

### NAFARROA

☉ IRUÑEA Francisco Javier Escudero Arevalo, 90 urte. Carmen Andueza Español, 81 urte. Maria Angeles Etxebarri Pablo, 56 urte.

☉ ARTAXONA Manuela de Urrea Arroiz, 83 urte.

☉ FALTZES Jose Luis Ausejo Etxarri, 66 urte.

☉ LIZARRA Jesusa Arza Etxegarai, 85 urte.

☉ LUZAIDE Pedro Ferran Narbarte, 87 urte.

☉ NABASKOZE Felix Moler Barber, 76 urte.

☉ NOAIN Juana Catena Catena, 85 urte.

☉ ORKOIEN Isidro Ureta Morcillo, 89 urte.

☉ OROTZ BETELU Miguel Zalba Orradre, 58 urte.

☉ SADA Sucero Elduaen Berrobi, 83 urte.

☉ SESMA Felipe Ramos Zabaleta, 43 urte.

☉ ZANGOZA Josefa Lopez Domenech, 64 urte.

## ESKELAK

**ESKELAK  
ARRATSEKO 7AK  
ARTE HARTZEN DIRA:  
(943) 300 222**